

**Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

**El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.**

## **IMANOL PRADALES GIL - INBESTIDURA SAIOA**

### **Gasteizen, 2024ko ekainaren 20an**

Lehendakaria, Legebiltzarburu andrea, legebiltzarkideok; Sailburuok; Erakunde eta gizartearen arduradun eta ordezkariok, jaun andreok, egun on! Eskerrik asko hemen gurekin batera izateagatik.

Eusko Jaurларitza berriak izango duen ibilbide-orria aurkeztera nator Euskadiko herritarren ordezkari-tzaganbera honetara.

Horretarako, nire hitzaldia bost ataletan egituratuko dut:

- Lehenik eta behin, Euskadik bizi duen momentu historikoa eta testuingurua zein den zehaztuko dut, aurrean ditugun erronka, arrisku eta aukeren gaineko irakurketa zuekin partekatuz.

- Bigarrenik, etorkizun bidezkoago eta oparoago bat lortzeko itun soziala berri behar dugu. Bada, hori osatzeko marko estrategikoa zein izan beharko lukeen ere azalduko dut.

- Hirugarrenik, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta Euskadiko Alderdi Sozialistaren arteko akordioan oinarrituta, Eusko Jaurларitza berriak 1.000 konpromiso eta ekinbide aurrera eramango ditu. Garrantzitsuenak nabarmenduko ditut.

- Laugarrenik, hurrengo hamarkadan herri bezala egin beharko genituzkeen jauzi koalitatiboak aurkeztuko ditut, eta

- Azkenik, herritar guztien ongizatea hobetzeko, Euskadiren garapena aurrera eramateko eta zerbitzu publikoak hobetzeko konpromiso irmoa hartuko dut.

Has gaitezen, beraz.

Lehen pausua zein den argi dugu. Ezinbestekoa da egungo momentu historikoa zein den ondo definitzea eta guztiok horretaz behar bezala jabetzea.

Munduan aldaketa sakonak gertatzen ari dira eta horiek identifikatu eta ulertu behar ditugu gure tokia zein den ondo zehazteko eta aukera berriak baliatzeko.

Argi eta garbi esango dut: Europaren biziraupena ez dago bermatuta. Ezta Euskadirena ere. Biziraupen hori egunez egun irabazi behar dugu. Pausuz pausu. Erabakiz erabaki.

Bizirik dagoen Herria izaten jarraitu nahi badugu eta gizarte bezala aurrera egiten jarraitu nahi badugu sekretu bakarra dago: begiak zabaltzea.

Begiak zabaltu behar ditugu gure inguruan gertatzen ari dena ondo ulertzeko, gure burua behar bezala kokatzeko eta etorkizun hobe batera eramango gaituen ibilbide partekatua denon artean lantzeko.

Eszenatoki globalean krisi, eraldaketa eta iraultza sakonak gertatzen ari dira. Denak aldi berean. Eta gure eguneroko bizitzan eragin zuzena dute.

Krisi klimatikoa, iraultza zientifiko-teknologikoa, merkatal kokaguneen lekualdatzea, aldaketa demografikoak, gerrak eta inbasioak, mundu ordenaren eta botere nodoen egokitzapena, sistema demokratikoak zalantzan jartzea, natura baliabideen eta lehengaien kontrola lortzeko borrokak...

Zerrenda amaiezina da.

Segurtasun eza ahalbidetzen dituzten indar eta joerak dira.

Baita krisi humanitarioak eta migrazioarekin lotutako tragediak ekartzen dituztenak ere. Mediterraneotik Bidasoara.

Ikuspegi historiko batetik, aro berri baten atarian gaudela esan genezake. Aro konplexu eta ziurgabeagoa, zalantzarik gabe.

Desafio global itzelak aurrez-aurre jarriko dizkigu. Baita aukera berriak zabaldu ere.

Errealitate honen aurrean, gure Herriaren indarrak zeintzuk diren ondo dakigula, eragile globalak izan nahi dugu.

Gure herriaren etorkizuna eta desafio hauei emango dizkiegun erantzunak zuzen-zuzenean daude lotuta.

Asmatu behar dugu.

Ez dugu ikusle izan nahi. Historiaren protagonistak izan nahi dugu.

Errealitate berri honetan murgilduta dagoen herria gara eta gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu, gure erabakiak hartuz.

Euskadik bere lekua aurkitu behar du aro berri honetan.

Ziur nago gai izango garela.

Horretarako dagokigun ardura hartu eta aurrerapausoa sendotasunez eman behar dugu, gure aurrekoak gidatu zituzten baloreak oinarri hartuta.

Horrela laburtzen du Bengoetxea familiaren etxeko armarriak Etxebarrian: "Txikiak handia bentzi leide, asmoz eta jakitez".

Horrela beharko du.

Paz, libertad, democracia, convivencia, cultura del diálogo o búsqueda de consensos son valores a proteger. Son nuestros valores. Valores europeos.

En Europa nos encontramos en un momento trascendental para nuestro futuro.

Europa está sumida en un proceso de pérdida relativa de peso político y una creciente erosión de su liderazgo económico. A ello se une el cuestionamiento del modelo de democracia liberal.

Los Informes aportados por Mario Draghi y Enrico Letta han planteado la necesidad de fortalecer el proyecto europeo, proponiendo saltos cualitativos que nos permitan seguir siendo el lugar del mundo más libre, justo y próspero para vivir.

Europa representa un 6% de la población mundial y hemos pasado de alcanzar un cuarto de la economía global en 1990 a representar sólo un 17%.

La pérdida de dinamismo es más palpable si se compara con las economías que lideran el panorama mundial: Estados Unidos y China.

Es cierto que Europa sigue siendo un referente global y que el nuevo escenario nos abre nuevas puertas.

Ahora bien, nos corresponde aunar fuerzas y avanzar. Porque el primer paso para comenzar a retroceder es quedarnos quietos.

Y yo lo tengo claro: prefiero equivocarme por haberlo intentado que arrepentirme por no haber dado el paso.

Debemos apostar por mejorar nuestra competitividad y aprovechar las oportunidades que nos ofrece la nueva economía.

Oportunidades ligadas a la digitalización y la tecnología, la transición energética y ecológica, o las transformaciones sociales y sanitarias.

Nos encontramos en un momento clave, en una “intersección” vital. Debemos acertar.

La dependencia en productos y servicios básicos para nuestro bienestar ha sido alarmante en todas las crisis que hemos padecido y esta realidad condiciona nuestro desarrollo.

Si queremos seguir siendo protagonistas de nuestro futuro es imprescindible tener aseguradas capacidades productivas propias en términos, por ejemplo, de energía o alimentación.

A su vez, debemos desarrollar una política exterior de seguridad y de defensa común que nos ayude a ser más fuertes.

Europa debe actuar con autonomía y convertirse en un verdadero actor global, fiel a sus valores y modelo, en medio de una creciente polarización económica, militar y tecnológica entre Estados Unidos y China.

Y... ¿el futuro de Euskadi?

El futuro de Euskadi pasa, indudablemente, por el futuro de Europa.

Euskadi es nuestra casa común, y Europa nuestro lugar en el mundo.

Ezagutzen ari garen aldaketa horiek egiturazkoak dira.

Ikusten ari garenez, klase ertainak eta gure ongizate-eredua ahultzen ari dira.

Gizarte indibidualistago bat sendotzen ari da gure aurrean, alderdi politikoengandik nabarmen urruntzen ari dena. Sinesgarritasuna galtzen ari gara jendearen aurrean.

Eta horrek kezkatzen nau, populismoen, demagogiaren eta estremismoen gorakada dakarrelako.

Ez gaitzen tranpan erori: arazo konplexuak ez dira erantzun sinpleekin konpontzen. Inoiz ez da horrela izan.

Gure erakundeak, gure komunitate politikoa eta kultura demokratikoa indartzea dagokigu. Gaur inoiz baino gehiago.

Ekainaren 9an egiaztatu ahal izan genuen Europako indar antidemokratikoez gizaratean babes handia dutela.

Eta arriskua ez da mugimendu faxista, xenofobo eta arrazistetara bakarrik mugatzen. Horietara ere bai.

Arriskua konfrontazioa bilatzen duten pentsamolde politikoetara hedatzen ari da. Gizartea ulertzeko modu zehatz bat inposatu nahi digute. Pertsonen eta herrien askatasunaren ginetik.

Jarrera eta jokaera autoritario eta totalitarioez ari naiz, gizaratearen aniztasuna ukatzen dutenak, desberdina dena onartzen ez dutenak.

Errealitate horren aurrean gure eredu indartu behar dugu.

Euskadik erakutsi behar du egonkortasun politiko, instituzional, ekonomiko eta sozialerako eredu izaten jarraitu nahi duela.

Herrialde fidagarria, herritarrei bizitza proiektua garatzeko segurtasuna eta aukerak ematen dizkiena, besteak beste, enpresa, kultura edo zientzia alorretako proiektuak aurrera eramateko.

Errealitate eta behar berrietara egokitzeko eta horiei erantzuteko gai den Herria gara eta horrela jarraitu behar dugu.

Euskadi herrialde paregabea da. Zoragarria, esango nuke.

Azken urteotako egoera konplexu eta ezezagunetan ere aurrera egiten asmatu dugu. Datuek horrela erakusten dute:

- Euskadin milioi bat pertsona baino gehiago daude gaur egun lanean eta kotizatzen.
- Pertsona bakoitzeko errentak Europako batez bestekoa gainditzen du.
- Gazteen langabezia, azken hamarkada honetan, heren batera murriztu da.
- Industria eta zerbitzu aurreratuek gure ekonomiaren % 40a egiten dute, Europako batez bestekoaren barruan gaude.
- Nazioarteko kalifikazioek euskal kontu publikoen kaudimena egiaztatzen dute.
- Gure herriko pobrezia-tasa Europakoaren azpitik dago, nabarmen gainera.
- Euskadik Europako maila gorenean puntuatzen du gobernu gisa, bai eta erakundeenganako konfiantzan eta akordioak adosteko gaitasunari dagokionez ere.
- Europako batez bestekoaren ginetik gaude Nazio Batuen Genero Berdintasunaren Indizean eta Giza Garapena neurtzen duten adierazleetan.

Hemos avanzado en bienestar porque hemos mantenido una apuesta firme en favor de la economía productiva real, la generación de riqueza como fuente de cohesión social, la competitividad, el empleo de calidad y la justicia social.

Hemos avanzado porque somos inconformistas.

Tenemos algunos de los mejores indicadores de calidad de vida y cohesión social de nuestro entorno.

Sin embargo, vemos personas preocupadas por su futuro, descontentas con su situación o molestas por la realidad que viven...

Personas preocupadas por su situación laboral, porque no ven posibilidades reales para su emancipación, porque se sienten solas, o porque hay familias jóvenes que tienen dificultades para compaginar el cuidado de sus hijas e hijos con el cuidado de sus aitas y amas...

Es evidente también que afloran problemas relacionados con la salud mental como la depresión o la ansiedad, a las que tenemos que prestar especial atención.

Ni debemos ni podemos mirar para otro lado. Nuestra responsabilidad es trabajar para mejorar la vida de las personas.

Y nos vamos a empeñar en ello. Sé que lo haremos.

Lo haremos de la única manera posible: escuchando a la gente y poniéndonos en la situación y en los zapatos de la persona que tenemos enfrente.

Demostrando cercanía y capacidad de respuesta a las demandas y necesidades que se nos plantean.

En definitiva, haciendo política con sensibilidad emocional.

Quienes nos han precedido, siempre soñaron y trabajaron por lograr lo mejor para Euskadi.

Yo también aspiro a mejorar Euskadi con la ambición de dejar un País más avanzado y libre a quienes nos sucederán.

Tenemos grandes retos por delante. Desafíos a los que debemos responder con una mirada compartida, con una vocación de servicio al país. Sin atajos.

La clave es la colaboración entre diferentes actores políticos, instituciones, empresas y trabajadores, agentes sociales, culturales, el mundo científico, el tejido asociativo, la sociedad civil, las comunidades locales...

Los desafíos son enormes y no todo está en nuestras manos.

Ahora bien, sí hay algo que depende de nosotras y nosotros: la búsqueda del bien común más allá de los intereses particulares.

Euskadi no es una isla ni un oasis, pero seguimos manteniendo una forma de hacer y entender lo común, que debemos preservar.

Debemos mantener el rumbo que nos ha traído hasta aquí: diálogo, entendimiento entre diferentes, debate sosegado y colaboración.

Debemos fortalecer este modelo porque cuando miramos la situación política del Estado, por desgracia, observamos polarización, inestabilidad, juegos políticos fratricidas, posiciones populistas...

La incertidumbre y la inestabilidad en el Estado me preocupan.

Siempre estaré dispuesto a colaborar para frenar esta dinámica en la que nadie gana.

Siempre podrán contar con Euskadi para el diálogo, la estabilidad y la búsqueda del bien común.

Estoy convencido de que vamos a ser capaces de conseguirlo.

Tengo confianza y determinación para lograr acuerdos para la mejora del sistema de salud, el modelo de cuidados; las medidas para ajustar la solidaridad intergeneracional, la normalización del euskera, el impulso al autogobierno, el desarrollo de estrategias internacionales, el avance en ciencia e innovación, la transición económica y ecológica o la regeneración democrática.

Zintzotasun osoz esaten dut.

Benetan uste dut akordio zabalak lortzeko gai izango garela: akordio zabalak osasun-sistema eta zaintza-eredua hobetzeko, belaunaldien arteko elkartasuna egokitzeko, euskararen normalizazioa, autogobernuaren sustapena edo nazioarteko estrategien garapena bultzatzeko, zientzian eta berrikuntzan aurrera egiteko, edota trantsizio ekonomikoa eta berrikuntza demokratikoa egiazki lortzeko.

Me comprometo a trabajar sin descanso para propiciar acuerdos y pactos.

Acuerdos y pactos para mejorar el bienestar y las oportunidades de todas las personas.

Acuerdos y pactos para responder a un nuevo paradigma.

"And so here we are again, in need of a new paradigm". Son palabras de Minouche Shafik, ex directora de la London School of Economics en su libro "What we owe each other". ('Lo que nos debemos unos a otros').

Idea horrekin hasiko dut nire interbentzioaren bigarren zatia.

Shafikek arrazoi du: Munduko paradigma aldatu da. Gure kontratua berregituratu, berregokitu eta berritu behar dugu gaurko errealitateari erantzuna emateko.

Argi dugu: Euskadin ere gure itun soziala berritu behar dugu.

Epe ertain-luzerako bide berri bat zabaldu behar dugu. Eta hor, erakunde publikoek, itun sozial hori elkarlanaren bidetik gauzatu beharko dugu.

Ez bakarrik. Gizarte zibila, enpresa eta langileak, sektore akademikoa eta kulturaren mundua bidelagun izan beharko ditugu. Gizarte osoa izan beharko dugu bidelagun, zalantzarik gabe.

Lan horri hiru ardatzetatik heltzea proposatzen dut: "Ongizate Berria", "Euskadi Globala" eta "Euskadi Humanista".

Agenda hirukoitz hau euskal gizartearekin esparru politiko eta emozionalean berriro konektatzeko ezinbestekoa izango da, pandemiaren ondoren gizartea guztiz bestelakoa delako.

Ongizate Berritik hastea proposatzen dizuet.

XX. mendearen bigarren erditik aurrera eta Euskadin, bereziki, 80. hamarkadatik aurrera, garatu zen gizarte-ongizate eredu berregituratzen ari da. Ez baita gai egungo aldaketei eraginkortasunez erantzuteko.

Helburua da eredu eraldatzea, gizartearen eskaera eta behar berriei erantzun egokia emateko.

Politika publikoak hobetu eta optimizatu behar ditugu. Lortu dugun ongizatea zabaltzen jarraitzeko aukera emango dizkiguten politika berriak sustatu behar ditugu.

Etorkizuneko ekonomia eta industria berriaz ari naiz, bai eta kalitatezko enpleguaz eta etxebizitza eskuragarriaz ere, gure osasun-sistemaz, segurtasunaz, bikaintasuneko hezkuntzaz, zaintzaz, erronka demografikoaz, energia-trantsizioez, gizarte-babeseko sistemaz, integrazio-politikez...

Kulturaren adierazpen guztietan aurrera egin beharraz ere ari naiz: artean, letretan eta zientzian. Bere ondare kulturala zaintzen duen gizartea, zientifikoki informatua dagoena eta kritikoa dena, populismoen aurkako antidotorik onena da.

Gure ongizate-sistema berregokitu behar dugu hazten eta aurrera egiten jarraitzeko. Baita aukera berriak sortzeko ere. Betiere inor atzean utzi gabe.

Espazio fisikoak, birtualak eta mentalak birdefinitzen ari direla, mugikortasuna areagotu egin dela eta gero eta interdependentzia handiagoak ditugula, Euskadin berri behar den itun sozial honek dimentsio globala izan beharko du.

La “Euskadi Global” es la segunda agenda a la que hago referencia.

Una dimensión que nos permitirá crecer como país en el contexto internacional.

Queremos ser protagonistas y tener voz propia en las mesas en las que se toman las decisiones relevantes en Europa, decisiones que nos afectan directamente.

Queremos defender nuestra singularidad y nuestra lengua como patrimonio universal.

Para ello es obligado tejer nuevas redes y conectar con nodos que nos aporten valor. Valor humano, cultural, económico, científico, de seguridad...

Una estrategia global e internacional para que las y los vascos “surquemos los nuevos mares y mundos” en busca de prosperidad para nuestro País. De la misma forma que hicieron nuestros antepasados durante siglos.

Debemos ensanchar el concepto de prosperidad más allá de lo económico y material.

Se trata de la búsqueda permanente de la vanguardia, el conocimiento y la conexión con los núcleos más avanzados del planeta. Una Euskadi Global.

El nuevo contrato social debe tener rostro de persona, la “Euskadi Humanista”, nuestra tercera agenda.

Una mirada humanista que pondrá en el centro de toda acción la dignidad de la persona y la justicia social.

El estado de bienestar ha sido capaz de equilibrar, de forma razonable y positiva, muchas de las injusticias que padecíamos, pero están emergiendo nuevas injusticias y desigualdades que debemos atender:

- Brecha intergeneracional entre personas mayores y jóvenes,
- Dualidad entre buenos y malos empleos,
- Brecha de género,
- Distancia entre conectados y desconectados digitales,
- Brechas entre lo urbano y lo rural,
- Crecientes desigualdades entre la esfera pública y la privada,
- Distancia entre colectivos de diferente procedencia que convivimos en Euskadi...

Vamos a construir una Euskadi Humanista, basada en la dignidad de todas las personas, de quienes aquí estamos y de quienes están llegando y llegarán.

Una Euskadi de la que nos sintamos orgullosas y orgullosos.

Con ese espíritu planteamos el camino para renovar nuestro contrato social.

En definitiva, una triple agenda para seguir creciendo en bienestar y como País.

Para estar bien, para vivir bien y para sentirnos bien.

Para llevar a Euskadi a un futuro mejor, más próspero, libre y justo.

Como decía el Lehendakari Agirre: “Nuestra misión consiste en cumplir en el día de hoy con nuestro deber, pero cumplirlo todos”.

Hala bada, gure egitekoa da Euskadi norabide horretatik eramatea, Eusko Jaurlaritzaren erantzukizunetik hasita, elkarlanean.

Euskal herritargoa askotarikoa da, Anitza eta Heterogeneoa. Legebiltzar hau ere bada horren adibide.

Gobernua osatuko dugun bi alderdiok uste dugu herritarrek desberdinen arteko ulermen handiagoa eskatzen dutela, aitzakiarik gabe, blokerik gabe.

Gaur, Ganbera honetako gainerako alderdi politikoei deia luzatzen dizuet elkarrizketa eta lankidetzarako bide honekin bat egin dezazuen.

Ikuspuntu ezberdinak izateak eztabaida aberastuko du eta guztiontzat onuragarria izango da.

Mandatu hori jaso dugu euskal gizartearengandik, eta erantzun zintzoa eman behar diogu. Herriak behar du. Une historiko honek hala eskatzen digu.

Definitu dugun agenda hirukoitz honi erantzuteko, anbizio handiko Gobernu Programa proposatzen dugu, errealismoa oinarri hartzen duena.

Egin dugun lan honetan ere ilusioak eta erantzukizunak gidatu gaitu.

Gobernu Programak 1.000 ekimen eta konpromiso jasotzen ditu, bost ardatzetan egituratuta:



- "Pertsonak erdigunean",
- "Hazkunde- eta ongizate-eredua",
- "Trantsizio energetikoa eta jasagarritasuna",
- "Bizikidetz, Memoria eta Giza Eskubideak", eta
- "Autogobernua haztea"

Comienzo por la prioridad de nuestra acción política: las personas en el centro. Tratar de mejorar la vida de las y los vascos.

Este es nuestro principal cometido.

Actuaremos con ambición, transparencia, ilusión y rigor.

Y, por supuesto, nos auto-exigiremos los mejores resultados.

Porque la sociedad vasca es exigente.

Esa manera de trabajar es, precisamente, la que nos ha llevado a liderar la mayoría de indicadores de calidad de vida en el Estado.

Pero ahora toca dar un paso más. Subir al siguiente escalón. Queremos mirar de tú a tú a los países de referencia europeos.

Lo lograremos con esfuerzo, sacrificio y empeño. Como hemos hecho siempre. Tengo confianza en que volveremos a conseguirlo.

Apostamos por una nueva agenda del bienestar.

Bienestar significa seguir mejorando los servicios públicos de salud, educación, empleo, vivienda o las políticas sociales.

Para ello debemos aplicar la corresponsabilidad intergeneracional y garantizar la sostenibilidad económica de nuestro modelo.

Presento nuestros compromisos y actuaciones concretas de este primer eje en 11 áreas.

Primero: La salud. Nuestro bien más preciado.

Tenemos un objetivo: que la sociedad vasca sienta orgullo cada vez que cruza la puerta de un Centro de salud.

Que sepa que está en las mejores manos y cuenta con un sistema público y universal de referencia a nivel europeo.

Para lograrlo es imprescindible que todas y todos asumamos esta prioridad y rememos en la misma dirección, con la ilusión de mejorar cada día.

Tendremos que gestionar nuestros recursos de la mejor manera posible y escuchar atentamente a las y los profesionales de la salud. Debemos cuidar a quienes nos cuidan.

Queremos que sean protagonistas en este camino, que nos ayuden y nos guíen. Que compartan sus experiencias y aporten sus ideas para mejorar Osakidetza.

Cada persona tiene derecho a recibir la mejor atención médica pública y universal.

Una atención prestada por las y los mejores profesionales, con los mejores recursos a su alcance.

Por ello planteamos un Gran Pacto Vasco sobre Nuestro Sistema de Salud.

Un Pacto que establecerá un marco de trabajo y colaboración permanente con los actores que conforman nuestro sistema y los agentes políticos, sociales e institucionales.

Además, proponemos un Plan de Choque para la mejora de la Atención Primaria, la reducción del tiempo de espera o la reducción de las listas de espera quirúrgicas.

Sabemos que la Atención Primaria es nuestro primer dique de contención. Nuestra entrada al sistema de Salud.

Planteamos actuaciones concretas:

- Implementar las plazas en las Ofertas Públicas de Empleo para personal facultativo y de enfermería de Atención Primaria.
- Promover el acuerdo para abordar fórmulas de contratación más estable para quienes no accedan a las OPE.
- Propiciar que las y los profesionales dediquen menos tiempo a labores burocráticas.
- Mejorar los tiempos de acceso presencial a los centros de salud.

En cuanto al sistema en su conjunto, planteamos actuaciones concretas:

- Reorganizar y reforzar las plantillas, la formación y el reconocimiento de las y los profesionales.
- Seguir mejorando el modelo de organización desde el Diálogo social.
- Convocar Ofertas Públicas de Empleo que garanticen la estabilidad y la suficiencia de las plantillas.
- Avanzar en la renovación del acuerdo de condiciones laborales.

Además, comprometemos el 'Plan de Inversiones 2030', junto con otras instituciones públicas, que aborde la modernización y ampliación de las infraestructuras de Atención Primaria y nuestro sistema hospitalario.

Un Plan de Inversiones dotado con mil millones de euros de recursos públicos.

Además, comprometemos actuaciones específicas en relación a patologías de amplia afección en la sociedad. Entre otras:

- Estrategia de Salud Mental,

- Nueva unidad de apoyo psicosocial en materia de suicidio,
- Más y mejores programas de cribado activos en Euskadi,
- Estrategia de Salud Cardiovascular, o
- Ampliación de los servicios de salud bucodental, completando el PADI progresivamente.

Bigarrena. Hezkuntza aurrerabide sozialaren sinonimoa da.

Gure Hezkuntza Legea, Hezkuntza Hitzarmenean oinarrituta dagoena, berdintasunaren eta kohesioaren bermerik onena da.

Kalitate goreneko hezkuntza sistema defendatzen dugu. Inklusiboa eta bidezkoa. Gure ikasleen eskola-arrakasta erdigunean jartzen duena. Eta sarbide unibertsala bermatzeko eskola publikoa erreferente bezala kokatzen duena.

Ekinbide zehatzak proposatzen ditugu:

- Eskola publikoaren bikaintasuna bermatzeko Plan Estrategikoak eta azpiegituretan inbertitzeko Programak.
- Segregazioaren kontrako Itun Soziala. Eta
- Euskara eta euskal kultura ardatz jarriko dituen marko eleanitz berria garatzea, gure bi hizkuntza ofizialen jakintza bermatzeko.

Laugarren industria iraultzari, eta abiatzen ari den bosgarrenari, erantzun egokia emateko Lanbide Heziketan ere ekinbide zehatzak proposatzen ditugu:

- Zentroak erakunde adimendunetan bihurtzea.
- Enpresa Txiki eta Ertainei zentroen bidez babesa ematea, eta
- Erasmus plus beka-programa aurrera eramatea.

Ez dut ezer berririk esaten munduko herrialde eta eskualde aurreratuenean abangoardiako erakunde zientifiko eta akademikoak dituztela esaten dudanean.

Europaren abangoardian egongo bagara, erabakitasunez heldu beharko diogu anbizio handiko politika zientifiko eta Unibertsitarioari.

Oinarritzko ikerketaren bikaintasuna lortzeko gai bagara, gure inguruko ezagutza aurreratua handitu ahal izango dugu. Baita aurrerapen teknologikoa sustatu, ezagutza ekoizpen-prozesuetara transferitu eta gure herriaren mesedetan talentua mantendu eta erakarri.

Azken batean, zientzia eta unibertsitatea giltzarri dira, eta gero eta gehiago izango dira, edozein herrialdeetako ekonomia eta kulturarentzat.

Euskadi munduko erreferenteen artean kokatu behar dugu. Hoberenen artean gure lekua aurkitu behar dugu. Eta baditugu aukerak horretarako.

Gure unibertsitate-ekosistema indartzeko jarduera zehatzak proposatzen ditugu:

- Euskadiko eta Nazioarteko Unibertsitate Prestakuntza eta Ikerketarako Gutun baten bidez gauzatuko den unibertsitateko eragileekin akordioa.

- 2026-2030 epealdirako Euskal Unibertsitate Sistemaren Plan berria.

- Euskal Herriko Unibertsitatearen funtsezko izaera bermatzen jarraitzea, ekitatea eta berdintasuna ziurtatuz.

- Inbertsio publiko-pribatua zientzian, teknologian eta berrikuntzan handitzea. 2030ean Barne Produktu Gordinaren %3koa izango da,

- Urtean %6 handitzea doktoretza aurreko eta ondoko programetan egingo diren inbertsioak.

- "Unibertsitatea gehi enpresa" eta "Lanbide Heziketa gehi unibertsitatea" programak finkatzea. Eta,

- Ezagutza zientifikoa gizarteari hobeki transferitzea.

Azkeneko neurri hau funtsezkoa da. Informazio- eta dibulgazio-lan horretan gehiago eragin behar dugu.

Pertsona bakoitzak ulertu behar du oso garrantzitsua dela berrikuntzaren eta garapenaren aldeko apustua egiten jarraitzea.

Gaur egun luzaroago eta hobeto bizi bagara, hori zientziari eta ikerketari esker baita.

Hirugarrena: Gure konpromisoa da Gizarte Babesaren Euskal Sistemari politika transbertsala bultzatzea.

Zalantzarik gabe, gero eta zaharragoa den gizarte honen erronketako bat da.

Jarduera zehatzak ondorengoak izango dira:

- Herri-Itun baten bidez zaintza-eredu berria praktikara eramatea. Herri-Itun honek bermea, erantzukizuna eta lidergo publikoa ezaugarri izango ditu eta gizarte-antolamenduko eredu batean aurrera egitea ahalbidetuko du, gizarte-ekimeneko eragileek gizarte-zerbitzuen antolaketan parte hartuz.

- Zainketen gizarte-antolaketa sustatzea, genero-ikuspegian eta ikuspegi intersektionalean oinarritua, erantzukidetasunak sostengatua, emakumeen eta gizonen artean ematen den banaketa desorekatua zuzenduz.

- Kalteberatasun eta babesgabetasun bereziko egoerei erantzuna ematea.

- Gizarte-zerbitzuen sistema garatzea, ikuspegi komunitarioa eta kalitatearen, berrikuntzaren, zainketen orekaren eta iraunkortasunaren printzipioak kontuan hartuta.

- Desgaitasuna duten pertsonen autonomia indartzea. Eta, azkenik,

- Bizitzako etapa guztietan nahi ez den bakardadearen aurkako programa espezifiko bat abian jartzea.

De los cuidados de las personas a las medidas dirigidas a nuestro futuro.

Cuarto. Juventud.

Tenemos que cuidar la cantera de Euskadi. Nuestras y nuestros jóvenes tienen derecho a ver cumplidas sus aspiraciones.

Tienen derecho a desarrollar un proyecto de vida pleno en Euskadi si así lo desean. Deben verlo y sentirlo como algo posible, no como algo lejano al alcance de muy pocos.

Para ello necesitan buenos empleos y facilidades para acceder a la vivienda. También una sociedad viva en la que disfrutar.

Por ello, proponemos acciones concretas:

- Promover políticas que incidan en la creación de empleo de calidad para la juventud: buenos salarios y condiciones laborales, desarrollo profesional, mayor flexibilidad laboral y oportunidades de conciliación.

- Favorecer el acceso a una primera experiencia laboral.

- Impulsar un instrumento de financiación específico para personas emprendedoras jóvenes.

El Gobierno Vasco, además, ofrecerá ayudas a las personas jóvenes que quieran comenzar un nuevo proyecto. Que quieran emanciparse.

Actuaciones concretas:

- Línea de avales para completar la financiación del préstamo solicitado para adquisición de vivienda.

- Incrementar el límite del importe de ingresos anuales individuales hasta los 30.000 euros en los programas Emantzipa y Gaztelagun.

- Construcción de 7.000 viviendas en régimen de alquiler social y asequible.

- Promover convenios con los Ayuntamientos para generar 3.000 nuevas viviendas de carácter rotatorio.

Quinto. Vivienda. Este es uno de los mayores retos y una de las principales preocupaciones de la ciudadanía vasca, incluida la juventud.

La política de vivienda exige mayor foco. Y nuestra prioridad es clara: facilitar el acceso a una vivienda digna, adecuada y accesible a quienes no pueden disponer de ella en el mercado libre.

Actuaciones:

- Construcción y fomento de viviendas sociales y protegidas, ampliando el parque público y reservando un 50% de ellas a menores de 36 años.

- Ampliar el rango de ingresos máximos que permiten acceder a una vivienda de protección pública.

- Seguir impulsando el programa Bizigune ofreciendo a las y los propietarios una renta a cambio de la cesión de su vivienda a Alokabide.

- Promover una línea de avales que pueda contribuir a cubrir las fianzas de los contratos de arrendamiento para personas vulnerables.

- Dotar de seguridad jurídica a las limitaciones de las viviendas turísticas.

Seigarrena. Erronka demografikoa.

2030 Euskal Estrategiak herrialde aurreratuenak eta emaitza onenak ateratzen dituztenak hartzen ditu erreferentzia bezala.

Hemen ere ekinbide zehatzak proposatzen ditugu:

- 7 urtera arte luzatzea seme edo alabak dituzten familiei hileroko 200 euroko diru-laguntza. Familia ugarien eta guraso-bakarrekoen kasuan, laguntza hau 10 urtera arte luzatzea.

- Aitatasun eta amatasun baimenak 24 hilabetera arte luzatzeko beharrezkoak diren pausuak bultzatzea.

Zazpigarrena. Kulturak komunitatea eraikitzen du.

Izan ere, funtsezko papera betetzen du balore indibidual eta kolektiboen garapenean eta horien transmisioan.

Bertako kultur sorkuntza eta ekoizpena bermatuko dituen politika publikoak aurrera eramango ditugu. Baita kultur-eskuragarritasuna eta ekitatea sustatu ere.

Gure ondarearen zaintza eta transmisioa bereziki zainduko ditugu.

Ekimen eta ekintza zehatzak kulturari begira:

- Erakundeen arteko lankidetzatik abiatuta, '2028 Kultur Plan Estrategikoa' hedatzea.

- Kultura Sistemaren Lege berria onartzea.

- Euskarazko kultura eta emakumeen ahalduntzea bereziki kontutan hartuz, kulturaren sorkuntza eta ekoizpena bultzatzea.

- Kultura-ondarearekin lotutako inbertsioa handitzea, pixkanaka obra publikoari bideratutako diru-laguntzen %1 kultur esparrura zuzenduz.

Zortzigarrena. Euskara.

Herritar guztion ondarea da euskara. Munduan bereizten gaituen altxorra.

Euskal hiztunik ez zuen familia batean jaio nintzen. Euskara ez zen gure etxeko hizkuntza.

Hala ere, amak eta aitak oso garbi izan zuten euskara ikasteko aukera eman behar zigutela.

Hala egin zuten.

Bizitzak eman didan oparirik onenetakoa da, zalantzarik gabe.

Zorionez bigarren hizkuntza batean bizitzeko aukera duen pertsona bat naiz eta euskarak mundua ikusteko beste modu bat eskaintzen dit.

Berriz diot, zorionekoa naiz.

Azken hamarkada hauetan, Erakundeen lanari eta gizartearen konpromisoari esker, euskararen ezagutzak eta erabilerak gora egin dute.

Bide horretatik jarraitzeko beharrezko baldintzak sortzea da gaur egungo erronka.

Beharrezkoak diren politikak bultzatuko ditugu geroz eta pertsona gehiagok gure hizkuntza ikasteko aukera izan dezan eta euskararen erabilerak gora egin dezan.

Ekintza zehatzak:

- Euskara biziberritzeko eta ahalduntzeko 'Aroa' marko estrategikoa garatzea.
- Edozein pertsonari euskara doan ikasteko aukera eskaintzea, maila guztietan.
- Administrazio publikoarekin dugun harremanetan pertsona bakoitzak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidea egiazki bermatzea, eta
- Euskara alor teknologiko berrietara zabaltzea, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatuz.

Noveno. La seguridad es un pilar fundamental para el bienestar, estabilidad y progreso de cualquier sociedad.

Es una cuestión capital a la que daremos una prioridad absoluta por la magnitud de los retos que enfrentamos: ciberseguridad y cibercrimen, incremento de la criminalidad organizada, delitos de odio, radicalización de la violencia y desórdenes de orden público, violencia de género...

Actuaciones concretas:

- Modernizar la estructura de la Ertzaintza.
- Impulsar el diálogo para renovar el Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo de la Ertzaintza.
- Actualizar sus infraestructuras y herramientas.
- Mejorar la Academia Vasca de Policía y Emergencias como institución central de formación de la Euskal Polizia.
- Desarrollar CyberZaintza.

Décimo. Actividad Física y Deporte.

Entendemos la actividad física como escuela de valores, fuente de salud y bienestar individual y colectivo. También como factor de proyección internacional para Euskadi.

Iniciativas y actuaciones:

- Desarrollar una estrategia de investigación, en colaboración con las instituciones académicas, fortaleciendo la base científica que respalda la actividad física y el deporte.

- Apoyar a las Federaciones deportivas que opten por avanzar en la oficialidad de nuestras selecciones para participar en campeonatos oficiales internacionales.

Undécimo. Seguir profundizando en la mejora del modelo de gobernanza y transparencia, así como en la calidad institucional y la participación social.

Acciones concretas para profundizar en una Administración más cercana, sencilla y eficiente:

- Desburocratización de la Administración impulsando una Ley de Agilización y Simplificación Administrativa.

- Mejorar la atención ciudadana que se presta de forma presencial y telemática.

Primer eje de nuestro Programa de Gobierno: 'Las personas en el centro',

Segundo: 'Modelo de crecimiento y bienestar'.

El progreso de un País no es posible sin un tejido económico e industrial competitivo y diversificado.

Debemos propiciar las condiciones para afrontar el "Industry Deal".

La industria ha vuelto a cobrar importancia estratégica en Europa, y en Euskadi debemos aspirar a liderar este renacer industrial. Vamos a contribuir a ello desde nuestras capacidades tecnológico-industriales. Vamos a hacerlo a través del modelo de colaboración público-privado.

Asumimos también el reto de ofrecer los instrumentos financieros necesarios para impulsar la actividad económica, la industria y los servicios avanzados. Todo ello para garantizar oportunidades de empleo de calidad.

En esta misma línea, vamos a mantener la apuesta por la innovación y aprovechar las oportunidades que nos ofrece la nueva economía.

Y debemos favorecerlo también mediante un clima constructivo en el ámbito de las relaciones laborales. Pasando de las estrategias de confrontación, a la vía del diálogo y la negociación.

Presento los compromisos y actuaciones de este segundo eje en 9 áreas:

Primero. La industria como motor de Euskadi.

Nuestro compromiso es propiciar las condiciones para favorecer una economía de futuro dinámica y abierta.

Debemos subirnos a este tren y hacerlo cuanto antes. Es un objetivo compartido.

Actuaciones concretas:

- Plan de Desarrollo Industrial 2028.

- Reforzar la eficacia del ecosistema colaborativo compuesto por Clústers, Cámaras de Comercio o Asociaciones. Se trata de incorporar a todo el tejido industrial y económico a los grandes retos estructurales derivados de la descarbonización, la digitalización o la transición social.

- Crear un Fondo de Inversión para el Desarrollo de Infraestructuras Industriales que atraiga capital privado.



- Impulsar decididamente el Fondo Finkatuz para inversiones estratégicas que garanticen crecimiento, arraigo y tracción.
- Reforzar la actividad del Clúster Financiero e Inversor BasqueFik.
- Alinear las capacidades financieras de Euskadi a través de instrumentos que conformen un gran Fondo soberano vasco.
- Modificar la regulación de las EPSV para que un porcentaje de su capital se invierta en proyectos que permitan el arraigo y crecimiento del tejido industrial.
- Seguir potenciando los Planes Estratégicos para Zonas de Actuación Prioritaria.
- Desarrollar el Net-Zero Basque Industrial Super Cluster para acelerar la descarbonización del consumo energético en la industria.

Bigarrena. Kalitatezko enplegua eta talentua.

Euskadik jarduera-tasa altuak ditu. Milioitik gora pertsona ari dira lanean eta kotizatzen gaur egun.

Gure helburua da langabezia-tasa murriztea eta enpleguaren kalitatea hobetzea. Baita enplegu-osoan lortzea ere.

Jarduera zehatzak izango dira:

- Enplegu-esparru guztietan soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko bideak zabaltzea. Horretarako, lan-harremanen esparru propioa eta diferentziala dugu. Balioa eman behar diogu eta bere potentzialitatea behar bezala garatu.

Horrez gain,

- "Lanbide Hobetzen" eraldaketa burutzea.
- Gizartean eta lanean baztertuta dauden pertsonen laneratzea bultzatzea.
- Elkarrizketa Sozialeko Mahaitik soldata-arrakala murrizteko estrategia bat sustatzea eta lanean kontziliazio-politikak indartzea. Eta,
- Basque Talent Center sustatzea.

Hirugarrena. Berrikuntza.

Euskadi Europako goi-mailako berrikuntza egiaztatzen duten Eskualdeen taldean kokatuta dago. Helburua da berrikuntzan liderra izango den eskualdea bihurtzea.

Hori lortzeko ekinbide zehatzak:

- Ikerketa, garapena eta berrikuntzako politiketarako aurrekontu-inbertsioa urtean gutxienez %6ra arte handitzea.

- Sektore enpresariala sustatzea, berrikuntzaren eta teknologiaren bidez abantailak eskuratu ditzan.

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren esparruan, Unibertsitatearen eta Lanbide Heziketaren arteko lankidetzaren indartzea.

Laugarrena. Digitalizazioa eta Adimen Artifiziala.

Euskadi azpiegitura eta zerbitzu digitalen 'Hub' bihurtzeko apustua egiten dugu, teknologiak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko.

Lehiakortasun ekonomikorako eta garapen sozialerako aukera bat dela uste dugu.

Arlo horretan jarduera zehatzak definitu ditugu:

- 2030. urtera begira Euskadiko Trantsizio Digitalerako Estrategia garatzea.

- Adimen Artifizialeko proiektuen garapena erraztea.

- Enpresentzako 5G estaldura eta zerbitzuak sustatzea.

- Datuaren ekonomia bultzatzea. Eta

- Ekintzailatza digitala sustatzea, startup eta enpresa berritzaileak sortzen lagunduz.

Bosgarrena. Azpiegituretan inbertitzea.

Mugikortasuna eta konektibitatea ongizaterako eta lehiakortasunerako elementuak dira gizarte aurreratuenetan.

Politika publikoek garraio publiko irisgarria eta integrala erraztu behar dute.

Ildo horretatik, jarduera zehatzak izango dira:

- Abiadura Handiko Trenbide Sarearen amaiera lehenestea.

- Bilboko sarbideak eta geltokiak garatzea, Basauriko behin-behineko geltokia barne; Gasteizko lurperatzea eta Arkauteko lotunea; bai eta Donostiako geltokia amaitzea ere.

- Lille-Gasteiz trenbide-autobidea bultzatzea.

- Renfeko aldiriko zerbitzuak hobetzea.

- Euskal Trenbide Sarearen azpiegiturek hobetzea eta Bilboko eta Gasteizko tranbiak handitzea.

- Metro Bilbaoko 4. linearen aldeko apustua egitea eta 5. linearen eraikuntzan aurrera egitea.

- Forondako aireportua bultzatzea, erreferentzia izan dadin bai itsasoz haraindiko eta baita salgaien konexioetarako ere.

Seigarrena. Elikadura-politika, Nekazaritza eta Arrantza.

Gure nortasunaren parte dira. Funtsezkoak gure herriaren kohesiorako. Ezinbestekoak gure orekarako.

Lehen sektoreak zailtasun handiak bizi izan ditu nazioarteko ziurgabetasun egoera honetan. Gure laguntza eta babesa izango du, beti.

Jarduera zehatzak izango dira:

- Nekazaritza Politika Bateratua gure errealitatera egokitzeko neurriak hartzea.
- "Ispilu-klausulak" ezartzea,
- Hurbileko elikagaien erosketa eta kontsumoa sustatzea. Eta,
- Gobernantza-esparru berria bultzatzea Erkidegoko administrazioen eta nekazaritzako, elikagaien eta arrantzaren erakundeen artean.

Zazpigarrena. Merkataritza eta Ostalaritza garapena bermatzeko eta aberastasuna banatzeko ezinbesteko aldagaiak dira.

Funtsezko papera betetzen dute Euskadiko garapen ekonomiko eta sozialean.

Gaur egun, ezinbestekoa da tokiko merkataritzaren eraldaketa gauzatzea eta kontsumitzaile digitalaren eta aurrez-aurrekoaren eskakizunetara egokitzea.

Horregatik ekimen zehatzak proposatzen ditugu:

- Merkataritza eta Ostalaritzaren Mahaiak artikulatzea eta sektoreko elkarleen partehartzea sustatzea.
- Digitalizazioa eta iraunkortasuna oinarri hartuta merkatal-enpresak modernizatzea, profesionalizatzea eta aldaketa hau aurrera eramateko inbertsio-programak bultzatzea.
- Gure herrietako merkatu eta saltokiek bizirik eta indartsu jarrai dezaten bermatzeko neurriak hartzea.

Zortzigarrena. Bikaintasunezko Turismo jasangarria.

Gure helburua argia da: turismoak ekonomian duen inpaktu positiboa areagotzea.

Horretarako bide bakarra dugu: kalitatezko turismo jasangarriaren alde egitea. Turismo honek, ingurumena errespetatu beharko du halaberharrez.

Ekintza zehatzak:

- Turismoaren Kode Etikoa bultzatzea,
- Turismoaren erreferentziazko nazioarteko ferietan parte hartzea,
- Ekintzailatza sustatzeko laguntzak areagotzea,
- Basquetour indartzea Euskadi-Basque Country marka ere indartzeko. Eta
- Turismoaren Lege Berria bultzatzea.

Alor honetako 9.garren eta azken ardatza: Pertsona kontsumitzailea.

Erronka argia dugu aurrez-aurre: kontsumo arduratsua sustatzea eta pertsona kontsumitzaileen eskubideak egiazki bermatzea.

Horrexegatik, kontsumitzaileen babesa indartuko dugu eta gertutasuna eta eskuragarritasuna sustatuko ditugu.

Primer eje: 'Las personas en el centro',

Segundo: 'Modelo de crecimiento y bienestar',

Tercero: 'Transformación energética y sostenibilidad'.

No tenemos otra opción. No tenemos Planeta 'B'. El calentamiento global es un hecho al que debemos hacer frente, de manera decidida y compartida.

Nuestra supervivencia está ligada al Planeta. Seguir exprimiendo sus recursos no augura nada bueno.

Nuestro futuro, el de nuestras hijas e hijos, nietas y nietos, depende de las decisiones que hoy adoptemos. No vamos a dudar. Tenemos que acertar.

Debemos entender el significado de la transición energética.

No podemos pasar de una estación a otra de la noche a la mañana. Debemos hacerlo de manera ordenada e inteligente. La transición energética supone abordar la transición y garantizar la energía necesaria para mantener la actividad.

El sector productivo requiere una transición justa y ordenada que ayude a alcanzar los objetivos marcados.

Lo lograremos trabajando en equipo. Sin poner en riesgo nuestro futuro ni el del tejido industrial.

Destacamos 6 áreas de actuación en este tercer eje:

Primero. Transición Energética.

La Ley de Transición Energética y Cambio Climático nos ofrece una oportunidad que debemos aprovechar.

Hemos definido las siguientes acciones:

- Acompañamiento a inversiones de eficiencia energética en el ámbito industrial y en los edificios de actividad pública o privada.
- Promoción de proyectos de generación renovable Km 0 en ámbitos locales.
- Asegurar que las nuevas viviendas vayan equipadas con un nivel de autoconsumo energético térmico elevado.
- Agilizar los trámites para impulsar las energías renovables.

Segundo. Medioambiente

Proponemos las siguientes actuaciones concretas:

- Inversión en infraestructuras verdes, restauración ecológica y reparación de funciones de los ecosistemas.

- Reforzar la capacidad de respuesta de las infraestructuras existentes frente a eventos meteorológicos extremos.

- Plan de Finanzas Sostenibles para fomentar la innovación y competitividad verde de las empresas vascas.

Tercero. Economía circular.

Reducir el consumo de materias primas y luchar contra el cambio climático son cuestiones inaplazables.

Planteamos, entre otras, las siguientes iniciativas:

- Plan de Economía Circular y Bioeconomía de Euskadi 2028.

- Programa “Basque green talent” para fomentar las oportunidades de la economía circular entre la juventud.

- Programa de Consumo Responsable en el marco de un “Pacto social para un consumo circular y sostenible en Euskadi”.

Laugarrena. Garraio iraunkorra

Euskadik kalitate handiko garraio-sistema publikoa dauka, eta hori bultzatzen jarraitu behar dugu.

Ekintza zehatzak:

- Erabilera areagotzeko, tarifen integrazioa osatzea.

- Errekarga elektrikoko azpiegiturak bultzatzea eta potentzia handiko karga-sarea handitzea.

- Garraio publikoa elektrifikatzea, floten berrikuntza aurrera eramanez.

Bosgarrena. Hiri-agenda berria

Gure helburua da herri eta hiri jasangarriagoak izatea. Baita elkarbizitza-gune gehiago sortzea ere.

Konpromiso zehatzak zehaztu ditugu:

- Lurralde-plangintzako tresnen berrikuspenean auzoen ikuskera jasangarriagoa jasotzea.

- Ikerketa, garapen eta berrikuntzako prozesuak bultzatzea, hirien jasangarritasuna hobetzeko.

- Etxebizitzetan irisgarritasuna areagotzeko neurriak hartzea.

Seigarrena. 2030 Agendarekin dugun konpromisoa irmoa eta erabatekoa da.

Jarduera zehatzak:

- 2030 Agendako Lehenetsunen Euskal Programa eguneratzea.

- Garapen Iraunkorreko Helburuak betetzeko egin dugun ekarpenaren ebaluazioarekin jarraitzea. Eta

- Nazio Batuen Erakundeak Euskadin duen Toki Idazkaritzarekin elkarlanean aritzea.

Gure programaren laugarren ardatza: Bizikidetzeta, Memoria eta Giza Eskubideak.

Denok gara berdinak. Errespetua merezi dugu eta gure aurrekoa errespetatu behar dugu.

Hori da gure Herria eraikitzeke oinarrizko abiapuntua. Gure jarduera guztietan aplikatu behar dugun printzipioa.

Gainera, gizarte honen gaitz handienetako baten aurka borrokan jarraitu behar dugu: indarkeria matxistaren aurka, hain zuzen ere. Gizarte osoak bat egiten du zeregin horrekin.

Baita berdintasunaren eta LGTBIQ plus aniztasunaren defentsarekin ere.

Aldi berean, etorkizunari begiratu behar diogu iraganarekiko begirada kritiko batetik.

Hitz gutxitan esanda: politikoki eta sozialki bizikidetzarako zoru etikoa onartzeko gai izan behar dugu.

Bost jarduera-arlo nabarmenduko ditut:

Lehenengoa. Genero-berdintasuna.

Helburua da indarkeria matxistarekin bukatzea eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte eraikitzea.

Honako jarduera hauek proposatzen ditugu:

- Indarkeria-matxista egoerak antzemateko tresnak indartzea eta biktimei laguntza soziala ematea.

- Arreta-zerbitzuak hobetzea, biktima guztien eskura daudela ziurtatuz.

- Protokolo bat egitea sexu-esplotazioaren biktimak babesteko.

- "24 orduko krisi-zentroak" sustatzea. Eta

- Gizonduz programaren irismena areagotzea.

Bestalde, soldata-arrakalaren aurkako planaren aplikazioa sustatu eta enpresetan eta erakundeetan berdintasuna bultzatuko dugu.

Beste helburu garrantzitsu bat ere definitu dugu: 'indarkeria matxistarik ez' haurren eta gazteen eremuan.

Arlo horretan, jarduera zehatzak izango dira:

- Indarkeria matxistaren eraginpean dauden haurrei arreta emateko estrategia garatzea.

- Hezkuntza informalearen esparruan, indarkeria txiki-txikitatik prebenitzeko prebentzio-programak sustatzea.

Bigarrena. LGTBIQ plus pertsonen errealitatea berdintasun-politika publikoen agendan txertatuko dugu.

Ekintzak:

- Tratu-berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren Legea bultzatzea.

- Kolektiboaren erronkei ikuspegi askotatik eta sektore ezberdinetatik helduko dien estrategia integralari heltzea.

Hirugarrena. Guztion balioak aldatzen laguntzea. Arlo horretan konpromisoak izango dira:

- Ahalduntzeko eta balioak aldatzeko proiektuetan emakumeen elkarre-mugimenduaren eta mundu feministaren ekimenak sustatzea.

- Gizarteratze, inklusioaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-erakundeekin lankidetzara indartzea.

- Tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko politiketan aurrera egiteko planak bultzatzea, eta bullying, homofobia edo mobbing jarrerak prebenitzea.

Cuarta. Convivencia y Derechos Humanos.

La desaparición de ETA fue uno de los logros más importantes de la década anterior. Puso fin a demasiados años de terror, injusticia y dolor.

Dejamos de contar personas asesinadas, heridas, amenazadas o chantajeadas.

Dejamos de abrir periódicos e informativos entre lágrimas y rabia.

Cientos de vascas y vascos dejaron de llevar escolta por las calles porque ya no estaban señalados por una diana.

Desde entonces, consolidar una convivencia plural, integradora y comprometida con los derechos humanos se ha convertido en una prioridad de País.

Eso sí, este ejercicio requiere construir una memoria crítica con el pasado y solidaria con las víctimas.

Una memoria que reconozca sin ambages la injusticia del daño causado por toda forma de terrorismo o violencia.

Y una memoria constructiva que nos ayude a avanzar.

Nuestro objetivo es promover un modelo de convivencia fundamentado en cuatro pilares: deslegitimación de la violencia; reconocimiento integral de todas las víctimas de vulneraciones de derechos; construcción de una memoria inclusiva, crítica y ética; promoción de los principios y valores éticos y democráticos.

Acciones concretas:

- Plan de Legislatura en materia de Convivencia y Derechos Humanos.

- Continuar desarrollando la Ley vasca de reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo, la Ley vasca de reconocimiento y reparación de víctimas de vulneraciones de derechos humanos y la Ley de Memoria Histórica y Democrática de Euskadi.

- Poner en marcha el nuevo Museo de la Paz en Gernika.

- Continuar impulsando los programas de educación para la paz, memoria y convivencia.

Quinta. Justicia e Instituciones penitenciarias.

Acciones concretas:

- Reforzar las compensaciones por la asistencia jurídica gratuita y la asistencia legal penitenciaria, para garantizar el acceso de toda la ciudadanía independientemente de sus recursos económicos.

- Impulsar una justicia accesible a los niños, niñas y adolescentes y poner en marcha el VI Plan de Justicia Juvenil.

- Avanzar en la euskaldunización de la Justicia.

Gure programaren bosgarren eta azken ardatza: Euskadiren nazioartekotzea eta autogobernua haztea.

Euskadi globala helburu – Euskadi Basque Country ardatz.

Gure herriak munduari harrotasunez begiratzen jarraitu behar dio.

Zeregin hau ezinbestekoa da nazioarte mailan gure herriaren interes sozial, ekonomiko, kultural edo politikoak defendatzen jarraitzeko.

Ekintza zehatzak:

- Kanpoko ordezkartzen, merkataritza-bulegoen edo bulego ekonomikoen erakunde-sarea indartzea.

- Lehentasunezko herrialdeetako Think Tank, erakunde eta ordezkartza diplomatikoekin harremanak areagotzea.

- Euskadik Europar Batasunean duen rola indartzea, bere foro eta erakundeetan parte-hartze aktiboa defendatuz.

- Makroeskualde Atlantikoa sortzeko azken pausuak irmotasunez bultzatzea.

- Euskal Diasporaren Legea onartzea. Eta,

- Atzerriko talentuaren sare globala sendotzea.

Garapenerako Lankidetzaren nazioarteko elkartasunarekin konpromisoa hartu duten gobernuen lanabesa da.

2030 Agenda eta haren Garapen Jasangarriko Helburuak oinarri hartuta, pobrezia eta desberdintasunen aurka borrokatzen edo gure planeta babesten lagundu behar dugu.

Ondorengo ekintza hauek proposatzen ditugu horretarako:

- Garapenerako Lankidetzaren euskal eredia eraldatzea eta bosgarren Gida Plana bultzatzea.

- Garapenerako Lankidetzaren Agentziaren eginkizun aktiboa indartzea.

Crece en Autogobierno.

Afrontamos esta Legislatura con la máxima ambición y asumiendo una gran responsabilidad:



- Defender el Autogobierno alcanzado.
- Culminar el Estatuto de Gernika y recibir todas las competencias pendientes; y
- Alcanzar un nuevo Pacto Estatutario.

Es nuestro compromiso. Es lo que Euskadi necesita 45 años después.

En cuanto a las competencias pendientes, me comprometo a trabajar para hacer realidad el compromiso asumido por el Gobierno de Pedro Sánchez en 2020.

Además, daremos un paso más. Ha llegado el momento. Aspiramos a acordar y aprobar un nuevo Pacto Estatutario para Euskadi con el máximo consenso posible.

¿Por qué es necesario?

Destaco tres razones que se pueden extraer de las conclusiones de la Ponencia de Autogobierno:

- Primera. Disponer de una herramienta que nos ofrezca garantías en el tablero de juego europeo. Recordemos que cuando se aprobó el Estatuto de Gernika no formábamos parte de la Unión Europea.

Hoy el escenario internacional ha cambiado totalmente. Debemos adaptar nuestro Autogobierno a la realidad y las aspiraciones de la Euskadi global.

- Segunda. Contar con nuevas competencias que nos ayuden a crecer como País y den respuesta a las nuevas necesidades y derechos planteadas por la sociedad vasca. Se trata de actualizar y adecuar a la realidad actual nuestras competencias, siempre sobre la base de una coincidencia básica en Euskadi: más Autogobierno es sinónimo de mayor bienestar.

- Tercera. Asentar una relación bilateral con el Estado que incluya el reconocimiento de nuestra realidad nacional, la singularidad de nuestro Autogobierno, así como un sistema de garantías para el cumplimiento efectivo de lo acordado. Contamos con el modelo de relación bilateral del Concierto Económico que es de aplicación a un nuevo marco jurídico de relaciones institucionales y políticas entre Euskadi y el Estado.

Los pasos para hacer realidad el nuevo Pacto Estatutario son conocidos: negociación y aprobación tanto en Euskadi como con el Estado, con el mayor consenso posible, y ratificación en referéndum por la ciudadanía vasca.

En este sentido, considero que les corresponde a los partidos políticos en primera instancia, como representantes de la voluntad popular, trabajar el procedimiento más adecuado para encauzar el nuevo Pacto Estatutario.

Es la hora de ser valientes. Es la hora de dar el paso.

Ha llegado el momento de consensuar un gran Pacto Político por el futuro de Euskadi que supere la dimensión, ambición y alcance del logrado en 1979.

Favoreceré y defenderé el diálogo, la negociación y el consenso para hacerlo posible.

Ausartak izateko unea iritsi zaigu. Ambizioa izateko momentua iritsi zaigu. Egin dezagun aurrera eta adostu dezagun hemen gauden guztion artean Euskadi etorkizunera eramango duen Itun berri bat. Egin dezagun errealitatea aldatzeko ilusioarekin.

En esta cámara estamos reunidas las 75 personas elegidas por la sociedad vasca para esta importante labor. Debemos estar a la altura. Somos sus representantes y debemos responder a la aspiración de alcanzar un nuevo Pacto Estatutario para la nueva Euskadi.

Compartimos una misma voluntad: crecer en Autogobierno. Crecer en bienestar. Hagámoslo posible.

Este es nuestro Programa.

El Gobierno que formaré tendrá el mandato de llevar todas estas iniciativas y compromisos a cabo.

Lo hará trabajando en equipo, con humildad, escuchando a la sociedad y estando siempre cerca de las personas.

Un Gobierno con mujeres y hombres de acreditada competencia política y profesional. Comprometidas y dispuestas a tomar decisiones valientes para que Euskadi avance en bienestar y libertad.

Personas que aparcen temporalmente sus carreras profesionales para poner su conocimiento y experiencia al servicio de Euskadi.

No va a ser sencillo, pero la complejidad de los desafíos a los que nos enfrentamos y el momento histórico así lo exigen.

Todo esto exigirá poner el foco en materias muy concretas para ser ágiles a la hora de encontrar soluciones. Lo haremos.

El nuevo Gobierno Vasco estará preparado para dar respuesta a los problemas actuales, los retos emergentes y las políticas que asumirá a través de las nuevas competencias que deberá gestionar.

Todo ello exigirá una nueva estructura, mayor focalización de las políticas públicas y otra dimensión. Euskadi necesita un Gobierno que garantice una respuesta eficaz a los nuevos desafíos que afrontamos.

Azken zatiari ekingo diot.

Hasieran azpimarratu dut oso garrantzitsua dela bizi dugun une historikoaz jabetzea. Baita argi izan behar dugula Herri gisa emango dugun erantzunean asmatu behar dugula.

"Herri gisa" diot, erronka horiek guztioi eragiten digutelako. Denon ardura izango da.

Eusko Jaurlaritzak, azaldu dudan programaren bidez, jarraipena emango dio azken 45 urteotan gobernuek egin duten lanari. Bide horretatik politika eta zerbitzu publikoak hobetzen saiatuko da.

Puntu honetara iritsita, tarte bat hartu nahi dut Iñigo Urkullu Lehendakaria buru izan duten hiru gobernuek egin duten lan bikaina aitortzeko eta nire esker ona adierazteko.

Lehendakari, zuk, zure gobernu eta lantaldeek ez duzue bat ere erraz izan.

Bizi izan ditugun krisialdiek erabat zaildu dizuete zuen zeregina. Baina, egoera latzenetan ere, Euskadi aurrera ateratzea lortu duzue. Emaitzak horren erakusle dira.

Gure herriari eskaini eta erakutsi dizkiozun lidergo, lan eta konpromisoa eredugarriak izan dira. Eskerrik asko, bihotz bihotzez!

Hoy, el escenario global que vivimos nos muestra que nuestro pueblo necesita seguir avanzando.

Por eso, además del camino marcado en el Programa de Gobierno planteo cuatro saltos cualitativos para la próxima década.

Primero: salto económico-tecnológico-industrial

Euskadi necesita un nuevo pacto industrial, el nuevo “industry deal” vasco. Una estrategia ambiciosa que permita impulsar la revitalización, transformación y desarrollo de nuestra economía, aprovechando las oportunidades ligadas al desarrollo tecnológico-científico.

Una estrategia que impulse la competitividad de las empresas vascas y nos sitúe como punta de lanza del norte del sur de Europa.

Es un reto de país y necesitamos un gran acuerdo que involucre al tejido empresarial, tecnológico, científico y financiero con el acompañamiento y liderazgo colaborativo de las instituciones vascas y los agentes sociales.

Euskadi ha acertado en su apuesta por la industria y la modernización económica desde la década de los 80.

Sabemos bien que el desarrollo industrial y económico es el resultado de la colaboración entre lo público y lo privado.

Vamos a dar un nuevo salto. Vamos a responder al “industry deal”. De ello dependerá la prosperidad y el bienestar de nuestro futuro.

Segundo: salto en la solidaridad intergeneracional

Nos debemos a nuestros mayores, sí, y a nuestras hijas e hijos, también. Queremos una sociedad justa, cohesionada y equilibrada. Todo ello requiere un sistema de doble solidaridad. Solidaridad con el pasado sí, y solidaridad con el futuro también.

El sistema de solidaridad intergeneracional que nos dimos (pensiones, sistema de salud, modelo de cuidados, educación...) respondía a un tipo de sociedad que ha cambiado.

Por suerte, las personas vivimos más tiempo y mejor, la mujer participa al igual que el hombre en el mercado laboral, las y los jóvenes estudian durante más años y con una formación más cualificada...

Son avances de los que nos enorgullecemos.

Sin embargo, al mismo tiempo, observamos que las y los jóvenes, las personas que quieren formar una familia o quienes han venido a Euskadi por un futuro mejor, tienen dificultades, en ocasiones, para desarrollar sus proyectos vitales y mejorar su bienestar.

Durante los últimos años, se han impulsado políticas públicas para revertir esta situación y posibilitar la emancipación, aumentar la natalidad, promover empleos de calidad...

Pero debemos seguir profundizando y mejorando esta vía. Debemos dar un salto para equilibrar la solidaridad intergeneracional hacia el pasado y el futuro.

No puede ser que las opciones de futuro de la juventud vasca estén atascadas. Euskadi debe ser un país de futuro para las nuevas generaciones.

Me comprometo a promover esa apuesta colectiva por las y los jóvenes, por sus oportunidades. Nos lo debemos y se lo debemos.

Hirugarren jauzia: berrikuntza demokratikoa eta pizkunde komunitarioa

Nire hitzaldian demokraziaren garrantzia nabarmendu dut. Baita aurre egin beharko dizkien arriskuak zeintzuk diren zerrendatu ere.

Herri gisa aurrera egitea garapen demokratikoaren eskutik lortu daiteke soilik. Horrela baino ez ditugu bermatuko pertsonen askatasuna eta duintasuna.

Balore hauek tarteko, bere sendotasuna etengabe elikatuko duen Herri indartsu bat nahi dut.

Horretarako, sistema arauemaile eta instituzional sendoa behar dugu; baita hiritar konprometituak ere.

Beste era batera esanda, demokrazia ez da soilik oinarritzen estandar formal guztiekin bat datorren sistema batean, baizik eta, batik bat, gizartearen beraren kultura demokratikoan.

Erakunde sendo eta eraginkorrak behar ditugu; gizarte zibil aske eta autonomoa; hiritargo kritikoa, arduratsua eta komunitate sena duena.

Gure sistema instituzionala etengabe berritu behar dugu eta, aldi berean, espiritu komunitarioa sustatu.

Hurrengo urteetan, eta munduko leku askotatik datozen olatu antidemokratikoen aurrean, demokraziaren alde lan egin behar dugu, irmotasunez.

Demokrazia biziberritzen inbertitzen dugun guztia askatasunean, giza-duintasunean, ongizatean eta justizia sozialean inbertitzea da.

Eredugarri izan behar dugu. Izan ere, Adela Cortinak dioen bezala, “etika bazter batean uzten duen politika, besterik gabe, politika txarra da”.

Gaur alderdi guztiei dei egiten diet Euskadin politika ona egiteko. Politikan aritzeko Itun Etiko bat lortu dezagun.

Legebiltzar honetatik sortuko den Ituna, herrialde osoan zehar zabaltzeko gai izango garena.

Laugarren jauzia: euskararen biziberritzearen jauzia

Duela urte batzuk euskalgintzako hainbat aditu hasi ziren esaten euskararen normalizazio eta biziberritze prozesua “bidegurutze” batera iritsi zela.

Orduz geroztik, diagnostiko mailan Soziolinguistikaren klusterrak datu eta hausnarketa zorrotzak jarri dizkigu mahai gainean.

Azken urteotan, sekulako pausuak eman dira euskalgintzako eragileen, Eusko Jaurlaritzaren eta beste erakundeen arteko elkarlanean. Asko egin da. Baina ez da nahikoa.

Aldaketa sozial, demografiko, kultural edo teknologikoak eraginda, azken mende erdiko ibilbidean lortutako goranzko bidean meseta batera iritsi garela diote adituek.

Datozen hamarkadetako bidea adosteko eta martxan jartzeko unea da.

Euskaltzaindiaren Gogoeta Guneak azken hilabeteotan egindako lanak norantza interesgarriak markatzen dizkigu.

Nireak egiten ditut ondorioak eta bide berri horiek elkarlanean sustatzeko konpromisoa hartzen dut.

Bai. Iritsi da unea jauzi berria eragiteko euskararen biziberritzean.

Elkarlanean egingo dugu, adostasun zabalak landuz, pausu sendoak emanez. Ziur naiz gai izango garela, Maialen Lujanbiok abestu bezala: “herri hau sortzen segi dezagun, euskaratik ta euskaraz”.

Termino.

Cuatro saltos cualitativos: Pacto por la industria, Nuevo equilibrio intergeneracional, Fortalecimiento democrático-comunitario, Revitalización del euskera.

Salto que requieren amplios acuerdos políticos, sociales, empresariales, culturales, educativos; así como cooperación entre el ámbito público, privado, social y comunitario.

Contamos con las personas, las instituciones, los conocimientos y las capacidades para lograrlo.

Gracias al desarrollo y profundización del Autogobierno contaremos con los nuevos instrumentos y capacidades para acompañar este camino.

Como Lehendakari, me comprometo a impulsar estos saltos cualitativos para el futuro de Euskadi.

Estoy comprometido con Euskadi.

Acepto con honor el apasionante reto de liderar los cambios, transformaciones y mejoras que necesita nuestro País.

Siempre desde la máxima humildad y con la ambición de hacerlo bien.

Asumimos la misión de resolver los problemas a corto plazo, hemos definido la estrategia para las transformaciones a medio plazo y tenemos ilusión para la construcción del futuro de Euskadi.

Nos falta el elemento más importante. No podemos hacerlo solos. Este es un proyecto de país. Es tarea de todas y de todos.

Necesitamos que cada persona, desde su lugar y responsabilidad, arrime el hombro por el bien común. Por el bien de Euskadi.

Hoy y aquí, hago un llamamiento al pueblo vasco para recorrer juntas y juntos este camino de futuro.

Creo en Euskadi.

Creo en una Euskadi Plural, Próspera, Abierta, Justa y Libre.

Creo en una Euskadi en la que, como siempre me enseñaron en casa: "Nadie sea más que nadie. Nadie se crea más que nadie".

Creo en una Euskadi de todas y todos por igual.

Una Euskadi que fomenta la justicia y cohesión social. Que no deja a nadie atrás.

Una Euskadi de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres.

Que apoya y aplaude a quien arriesga, emprende e invierte para crear riqueza y empleo.

Creo en una Euskadi en la que nos sintamos orgullosas y orgullosos, por lo que somos y tenemos.

Una Euskadi que genere oportunidades para que las personas puedan desarrollarse de manera plena.

Una Euskadi que trabaja, se esfuerza y cuida a todas sus personas.

También una Euskadi en la que la gente sabe disfrutar y puede vivir feliz, por encima de todo.

Una Euskadi que aspira a ser el mejor lugar del mundo para vivir.

Helburu hauek lortzeko lan egingo dut beti. Gogor eta gogoz.

Zorroztasunez eta zintzotasunez.

Zerbitzu publikoak eskatzen duen apaltasunarekin.

Gure aurreko belaunaldien konpromisoari zor diogun errespetuarekin.

Lauaxetaren hitzetan: "Dana emon behar jako maite dan askatasunari".

Herriaren zerbitzura lanean beti, gure helburuaren alde:

Pertsona askeak, Euskadi aske batean.

Eskerrik asko!